## BIZITEGI ERAIKINA — ELKANO 4

**D MAILA**



**Egilea eta data: Jose Galo Aguirresarobe; 1867**

**Deskribapena.**
Mehelin arteko eraikina, jatorriz behe oina, lau goi oin eta txapitulak dituen teilatupe bat dituena. Harlanduzko fatxada behe oinean, eta goi oinetan entokatua, azpadurak nabarmenduta. Fatxadako baoak eta akaberak oso aldatuta daude behe oinean (horien zati bat 1901. urteaz geroztik).

**Babes erregimena.**

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: teilatupea (5. goi oina).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin lotzen dira irizpideak –fatxadaren eta behe oineko baoen konfigurazio bateratuarekin lotzen direnak barne–.